

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Oinarri arauak, funtzionamendu gastu orokorrak eta herriko jaiek eragindako gastuak finantzatzeko Kanpezuko Administrazio Batzarrari esleitutako dirulaguntzenak

Lehenengoa. Gaia

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen helburua da Kanpezuko udalerria osatzen duten herrietako funtzionamendu gastu orokorrak eta jaietan eragindako gastuak ordaintzen laguntzea.

Bigarrena. Erakunde onuradunak

Kanpezuko udalerriko administrazio batzarrek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldin eta zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean badituzte.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, bukatuta egon beharko da eskaera egiterakoan abian den itzulketa edo zehapen prozedura oro, Kanpezuko Udalak laguntza edo dirulaguntza bertsuak direla-eta abiaraziak.

Ezin dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu diren erakunde edo pertsonak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

Hirugarrena. Erakunde onuradunek dirulaguntza edo laguntza lortzeko bete beharreko baldintzak eta haiek betetzen direla egiaztatzeko era

Ezinbestekoa izango da eskaera eta oinarri hauetan eskatutako gainerako agiriak adierazten den eran eta epean aurkeztea.

Laugarrena. Agiriak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ondoko agiri hauek aurkeztea:

a) Eskaera orria (I. eranskina).

b) Aurreko ekitaldiko kontu ikuskatuen edo AFAn aurkeztuen kopia, gutxienez gastuak eta diru sarrerak, azken balantzea, kreditu erabilgarriak eta diruzaintzaren egoera zehazten dituenak.

b) Gastu orokorren edo herriko jaiak direla-eta egindako gastuen faktura guztien fotokopia. Hauek jaso beharko dituzte fakturen fotokopiek: - Data, dirulaguntza eman den urtekoa izango da. - Igorlea edo elkarte igorlea: haren izena edo sozietatearen izena eta IFZ. - Hartzailea edo elkarte hartzailea: haren izena edo sozietatearen izena eta IFZ. - Hornitzailearen zigilua edo sinadura. - Gastuaren xedea. - Prezioa (BEZa sartuta dagoen ala ez zehaztuta) eta PFEZaren atxikipena, hala badagokio. Langile gastuak badaude edo PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, 190 ereduaren kopia bidaliz egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkiotela Arabako Foru Aldundiari.

d) Helburu bererako beste diru sarrera publiko edo pribaturik jaso izanari buruzko zinpeko aitorpena. Gastu hori beste laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu bada, laguntza edo baliabide horien zenbatekoa eta jatorria egiaztatuko dira (II. eranskina).

e) Zinpeko aitorpena (III. eranskinean jasotako inprimakiaren arabera), adieraziz ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek, dirulaguntzenak, 13. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan jasotako egoeraren batean eta ez daukala zorrik Ogasunarekin edo Gizarte segurantzarekin, eta, halaber, konpromisoa, jaiak egin aurretik herriko jaiekin zerikusia duten dokumentuak aurkeztekoa (esku orriak, programak eta abar...), egiaztatzearen ea betetzen den hizkuntza eta irudi ez-sexistei eta jaietako berdintasunari buruzko araudia.

Bosgarrena. Aurkeztutako agirietan egindako akatsen zuzenketa

Dirulaguntza eskaerak ez badira aurkezten behar bezala beteta eta oinarri hauetan eskatutako agiri guztiak eta osagarriak dituztela, erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio hutsak zuzen ditzan edo falta diren agiriak aurkez ditzan gehienez 10 eguneko epe luzaezina duela adieraziko litzaioke erakunde eskatzaileari hutsak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko 10 eguneko epe ezin luzatuzkoan; hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela esan nahiko du, horretarako ebazpena eman ondoren, hala xedatzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan, 68. artikuluan lotuta.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Dirulaguntza eskaera eta gainerako agiriak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 30ean bukatuko da, egun hori barne. Herrietako jaiek eragindako gastuak banan-banan aurkeztu ahal izango dira, haiek ospatutakoan; baina, betiere, azaroaren 30a baino lehen.

Agiri guztiak Kanpezuko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutako eran.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

Zazpigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura eta irizpideak

Behin agiriak aurkeztutakoan, Idazkaritzari igorriko zaio, dagokion txostena eman dezan.

Herriko jaiei buruzko eskabideek, txosten horren aurretik, beste bat beharko dute, berdintasun teknikariak emana, egiaztatzearen hizkuntza eta irudi ez-sexistei eta jaietako berdintasunari buruzko araudia betetzen ote den.

Udaleko alkateak emango ditu dirulaguntzak, oinarri hauetan deskribatutako betebeharrak bete direla egiaztatutakoan.

Zortzigarrena. Laguntzen muga orokorrak

Deialdirako hornitutako diru zenbatekoa gainditzen bada, aukeran izango da dirulaguntza ukatzea edo mugatzea, baldin eta egiaztatzen bada diru sarrerak gastuak baino handiagoak izan direla.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Hauek izango dira, gehienez, administrazio batzarreko emango diren dirulaguntzak:

Gastu orokorretarako 2018rako emandako zenbatekoa: 20.000,00 euro; horietatik, ehuneko 60 linealki banatuko dira erakunde guztien artean, eta gainerako 40a urtarrilaren 1ean herrigune bakoitzak daukan biztanleen arabera. Hona nola:

ADMINISTRAZIO BATZARRA	BANAKETA LINEALA	BIZTANLERIA	GUZTIRA
OTEO	2.400,00 €	160,00	2.560,00
BUJANDA	2.400,00 €	144,76	2.544,76
URBISU	2.400,00 €	457,14	2.857,14

ADMINISTRAZIO BATZARRA	BANAKETA LINEALA	BIZTANLERIA	GUZTIRA
ANTOÑANA	2.400,00 €	1.135,24	3.535,24
SANTIKURUTZE	2.400,00 €	6.102,86	8.502,86

Jaietarako dirulaguntzak: 5.000,00 euro, ehuneko 60 linealki erakunde guztien artean, eta gainerako ehuneko 40a, urtarrilaren 1ean herrigune bakoitzak dauzkan biztanleen arabera. Hona nola:

ADMINISTRAZIO BATZARRA	BANAKETA LINEALA	BIZTANLERIA	GUZTIRA
OTEO	600,00 €	40,00	640,00
BUJANDA	600,00 €	36,19	636,19
URBISU	600,00 €	114,29	714,29
ANTOÑANA	600,00 €	283,81	883,81
SANTIKURUTZE	600,00 €	1.525,71	2.125,71

Dirulaguntzan ez dira sartuko bazkariei edo afariei dagozkien fakturak, salbu eta gastuak sorrarazten badira usadiozko jai ekitaldiarekin berarekin batera ezin bereizteko moduan doazen elikagai edo edariak erosteagatik.

Diruz lagunduko da BEZa.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta alde zuzenetik jasotzeko izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Hamargarrena. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honetan ezartzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta horrek ez badu gehiegizko finantzaketarik sortzen. Halakorik gertatuz gero, hau da, jasotako laguntzen edo dirulaguntzen guztizko batura jarduerarako onartzen den aurrekontua baino gehiago bada, gaingarria izango da dirulaguntzaren zenbatekoari.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen kopurua ezingo da izan, inolaz ere, bakarrik zein beste batzuekin batera, erakunde onuradunak egindako gastua baino gehiago.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza emateko epea eta ebazpenik ezaren ondorioak

Ebazteko epea hilabete izango da, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo behar da.

Hamabigarrena. Dirulaguntza justifikatzeko epearen amaiera

2018ko ekitaldiari dagozkion gastuak direnez gero, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira erakunde onuradunak egindako gastuak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

Hamahirugarrena. Erakunde onuradunak dirulaguntzaren helburua bete duela eta dirua zertarako erabili duen justifikatzeko era

Erakunde onuradunek fakturen eta ordainagirien bidez justifikatu beharko dute diruz lagundutako gastuak ordaindu dituztela.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZeko (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako ordainketei buruzko zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak.

Dirulaguntzak justifikatzean, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikokoak, uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduak, dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Gainera, faktura elektronikokoak aurkezten badira, Factura-e eta E4ktur estandarrei egokitu beharko zaie haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztekotan,

11/2007 Legeko @firma plataforma euskarri duten ziurtagiriak onartuko dira, urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak, Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarrengarritasun Eskema Nazionala arautzen duenak, xedatutakoarekin bat etorritik (http://www.dnielectronico.es/seccion_aapp/rel_autoridades.html).

Erakunde onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza errebokatzea ekar dezake, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura aplikatuko da, Kanpezuko Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

Hamalagarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Dagokion ebazpenak adierazten duen epean ordainduko da dirulaguntza, banku transferentzia eginda erakundeak eskaeran emandako kontu zenbakira.

Herriko jaien zenbatekoei gagozkiela, agiriak egiaztatu eta jaiak ospatu ondoren ordainduko dira.

Gastu orokorren zenbatekoei gagozkiela, urte barruan ordainduko dira, eskaera eta bidezko agiriak aurkeztu eta haiek zuzenak direla egiaztatu ondoren.

Azken egoera horretan, kontura aurrerakina eskatzea egongo da, gehienez ere, dirulaguntza-
ren ehuneko 40koa. Aurrerakin hori hogeita hamar eguneko epean ordainduko da. Dirulaguntza justifikatutakoan ordainduko da gainerako ehuneko 60a.

Hamabosgarrena. Dirulaguntza ematea onartzen duen ebazpena aldatzea ekar dezaketen egoerak

Dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da udalak gerora jakiten badu erakunde onuradunak helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza edo sarreraren bat jaso duela, eta ez duela jakinarazi dirulaguntza eskatzean.

Hamaseigarrena. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza zenbatekoa, beste dirulaguntza, laguntza edo sarrera batzuekin batera, diruz lagundutako gastuaren kostua baino gehiago bada, baliogabetu egingo da, eta, hala badagokio, gaindikina itzuli egin beharko da.

Hamazazpigarrena. Dirua itzultzeko prozedura. Arau haustek eta zehapenak

Dirulaguntza baliogabetez eta itzultze prozedura izapidetzean, erakunde onuradunak entzuna izateko eta bere jarduna aldezteko egoki jotako alegazioak aurkezteko duen eskubidea bermatuko da.

Arau-haustek eta zehapenak, berriz, dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorreko 16.etik 18.era bitarteko artikuluetan daude ezarrita.

Hemezortzigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak jasotzen dituzten administrazio batzarrek, betiere, eginbehar hauek bete beharko dituzte:

Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateari buruzko ebazpena jakinarazi eta hamar egun baliadun igaro baino lehen onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, dirulaguntza onartzen duela esan nahiko du.

Dirulaguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.

Kanpezuko Udalaren kontuhartze sailari nahi duen egiaztatze edo finantza kontrol oro egiten uztea.

Herriko jaiak direla-eta sortu diren agiriak (esku orriak, programak eta abar...) aurkeztea jaiak egin aurretik, egiaztatzearen betetzen den edo ez hizkuntza eta irudi ez-sexistei eta jaietako berdintasunari buruzko araudia.

Helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik edo diru sarrerarik jaso den jakinaraztea Kanpezuko Udalari.

Dirulaguntza emateko edo dirulaguntzaz gozatzeko betebeharrak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea Kanpezuko Udalaren aurrean.

Udalari ematea eskatzen dituen agiriak, eta emandako dirulaguntzaren inguruko errekerimendu orori erantzutea.

Kanpezuko Udaleko kontuhartzaitzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste zenbait organo eskudunek eskatutako argibide oro ematea.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezartzen dituenak.

Hemeretzigarrena. Dirulaguntzetarako kreditua

Gastu orokorren eta jaien dirulaguntzetarako 20.000,00 eta 5.000,00 euro bideratuko dira guztira, hurrenez hurren.

Hogeigarrena. Errekurtsoak

Erakunde interesdunek deialdi honen eta deialdi honetatik sortutako egintza guztien aurka jo dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako epe eta eretan.

Hogeita batgarrena

Oinarri hauetan jaso ez denerako, hauek aplikatuko dira: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuz gero, Kanpezuko Udalak ebatziko du.

Hogeita bigarrena. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesekoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategienak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Kanpezuko Udalaren dagokion fitxategian jasoko dira, zeina sartuta baitago Kanpezuko Udalaren datu pertsonalen fitxategien sorrera eta aldaketa arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Kanpezuko Udalera jo behar da.

1. eranskina

.....(e) ko gastu orokorrak edo herrietako jaiak ordaintzeko dirulaguntza eskaera.

.....jaunak/andreak, (NAN zk.:) jakinara-
zpenetarako helbidean duenakko Administrazio Batzarreko
lehendakaria den aldetik; helbidea:; posta kodea:; telefonoa:
..... eta posta elektronikoa:@..... (helbide elektronikoa adieraziz gero,
jakinarazpen guztiak, ahal dela, bide hori erabilita egiteko baimena ematen da).

* Administrazio Batzarra osatzen duteemakumek eta gizonek.

Adierazten dut:

..... herriak gastu orokorrak eta bertako jaiak direla-etaurtean
egindako gastuak finantzatzeko Kanpezuko udalerriko administrazio batzarrei dirulaguntzak
emateko deialdia ikusita, eta deialdian bertan adierazitako oinarrien berri izanda,

Hauxe eskatzen dut:

Lehena. Gastuok finantzatzeko dirulaguntza eman dakiola. Horretarako, deialdiaren 4. pun-
tuan aipatutako agiriak aurkezten ditu.

Bigarrena. Eskaera berrietan edo aldaketak dauden kasuetan dirulaguntza ordaintzeko banku
kontua adierazi behar da (entitatea, kontu zenbakia (IBAN), titularrak eta NANA).

Hirugarrena. Berdintasunaren arloko arauak betez, deklaritzen dut:

Lehena. Ez ordezkutzen dudak erakundeak, ez ordezkutzen dudak erakundeak gobernu edo
administrazio organoetako kide diren pertsona fisiko, juridiko zein erakundeek egiten dugula
sexuagatiko zuzeneko eta/edo zeharkako bazterkeria egintzarik, kideak onartzeko prozesuetan
edo funtzionamenduan, bat etorri Osasunaren Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Euskal Auto-
nomia Erkidegoko berdintasun Legeak 24(2) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Ez ni eta ez ordezkutzen dudak erakundea, ez eta sozietate honetako gobernu
edo administrazio organoetako kide den inor ere dagoela egun penalki edo administratiboki
zigortuta sexu bazterkeriagatik eta/edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko
arau-hausteengatik, zeintzuk ezartzen baitira abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekre-
tuan, gizarte arloko arau-hauste eta zehapenen Legearen testu bateratua onartzen duenean eta
martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdinta-
sunerakoaren hamalagarren xedapen gehigarrian (besteak beste, mugatzaile izaerarik gabe):

1. Ez betetzea langileen estatutuak edo aplikatzekoa den hitzarmenak berdintasun planen
arloan ezartzen dituzten betebeharrak.

2. Enpresaren alde bakarreko erabakiak, sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bazterkeria
dakartenak ordainsarrietan, lanaldietan, prestakuntzan sustapenean eta lan baldintzetan.

3. Erakundearen erabakiak, berekin dakartenak langileen kalterako tratua enpresari egindako
errekamazio baten aurrean edo tratu berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioa bete
dadin eskatzeko egintza administratibo edo judizial baten aurrean.

4. Sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bazterkeria dakarten baldintzak ezartzea enplegu-
rako sarbidean.

5. Sexu jazarpena, enpresa zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren esparruan gertatuz gero,
edozein delarik ere haren subjektu aktiboa.

6. Sexuagatiko jazarpena, enpresa zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren esparruan ger-
tatuz gero, edozein delarik ere jazarpena eragiten duen subjektu aktiboa, baldin eta, enpre-
sabuak horren berri izanda, galarazteko beharrezko neurriak hartu ez baditu.

7. Berdintasun plana ez egitea edo ez aplikatzea, edo egitea nabarmen bete gabe aurreikusitako terminoak, plan hori egin beharra abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, gizarte arloko arau-hauste eta zehapenen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 46 bis artikuluko 2. idatz zatian ezarritakotik ondorioztatzen denean.

....., ko.....ren

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua, hala badagokio).

Kanpezuko Udaleko alkateari.

2. Eranskina

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik lortu ez bada)

D/Ejaunak/andreak,herriko lehendakari den aldetik,

Zinpean deklaritzen du:

Ordezkatzen duen erakundeak ez duela inolako diru sarrera publiko edo pribaturik eskuratu ko gastu orokorrak eta jaiak direla-eta urtean egindako gastuak finantzatzeko.

....., ko.....ren

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua, hala badagokio).

Kanpezuko Udaleko alkateari.

2. Eranskina

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik lortu ez bada)

.....jaunak/andreak,herriko lehendakari den aldetik,

Zinpean deklaritzen du:

Ordezkatzen duen erakundeak..... euroko dirulaguntza edo laguntza jaso duela
.....k emanda (adierazi zein erakunde edo organismo den),ko
gastu orokorrak eta jaiak direla-eta urtean egindako gastuak finantzatzeko.

....., ko.....ren

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua, hala badagokio).

Kanpezuko Udaleko alkateari.

3. Eranskina

Zinpeko aitortpena

.....jaunak/andreak,herriko lehendakari den aldetik,

Zinpean deklaritzen du:

– Gastu orokorrak eta jaiak direla-eta urtean egindako gastuak finantzatzeko Kanpezuko Udalak ematen dituen dirulaguntzen deialdiaren harira, ordezkatzeko erakundea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako inongo egoeratan.

– Ez dagoela zorretan ez Ogasunarekin eta ez Gizarte segurantzarekin.

– Konpromisoa hartzen duela herriko jaiak direla-eta sortu diren agiriak (esku orriak, programak eta abar...) aurkezteko jaiak egin aurretik, egiaztatzearen betetzen den edo ez hizkuntza eta irudi ez-sexistei eta jaietako berdintasunari buruzko araudia.

....., ko.....ren

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua, hala badagokio).

Kanpezuko Udaleko alkateari.

Kanpezu, 2018ko otsailaren 7a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO